



URRUZ UNO

literatur lehiaketa
2022



Parte hartzeko oinarriak

1. KATEGORIAK

Ondoren zehazten diren mailetakoko ikasleek parte har dezakete:

A kategoria (Batxilergoko 1. eta 2. mailak edo Erdi Mailako Heziketa Zikloak).

B kategoria (DBHko 3. eta 4. mailak).

2. ARLOAK

Bi arlo izango dira: prosa eta poesia.

3. BALDINTZAK

Literatur lanek euskaraz idatziak eta originalak izan behar dute, lehiaketa honetan izena emateko epea itxi arte bestelako literatur saririk irabazi gabeak. Baldintza horietakoren bat bete ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da lana, horretarako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak berariazko erabakia hartu eta gero. Epaia argitaratu ondoren frogatuko balitz saritutako lanen batek ez duela baldintzaren bat betetzen, jasotako sariak itzuli egin beharko ditu egileak. Lanak bakarkakoak izango dira bi arloetan, eta gaia libreza izango da.

4. LANEN NEURRIAK

Lanen neurriak hauek izango dira:

PROSA:

- **A kategoria:** 5000-15000 karaktere artean, 1,5eko lerroartearekin (3 eta 8 orrialde bitartean, 12ko letra-tamainarekin).
- **B kategoria:** 4000-12000 karaktere artean, 1,5eko lerroartearekin (2 eta 6 orrialde bitartean, 12ko letra-tamainarekin).

POESIA:

- **A kategoria:** gutxienez 75 lerro (olerki bat baino gehiagok osa daitezke).
- **B kategoria:** gutxienez 50 lerro (olerki bat baino gehiagok osa daitezke).

5. NON ETA NOLA AURKEZTU

Lanak eskabide-orriarekin batera aurkeztuko dira, word formatuan, ondoko helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1052705>

Lanaren lehen orrialdean lanaren izenburua, egilearen ezizena, arloa eta kategoria jarriko dira soil-soilik.

6. LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea **2022ko urtarrilaren 10etik otsailaren 28ra** artekoa izango da (biak barne).

7. LAN SARITUEN AUKERAKETA

Aurkeztzen diren lan guztietatik, hogeitaz (20) lanik onenak sarituko dira; hamar (10) kategoria bakoitzean (5 prosa-lan eta 5 poesia-lan).



8. EPAIMAHAIA

Hezkuntzako sailburuordeak epaimahaia izendatuko du lanak aztertu eta sariak nori eman proposatzeko. Epaimahai hori 5 euskal idazlek eta Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute.

9. IRIZPIDEAK

Idazlan onenak aukeratzeko, ondoko irizpideak izango ditu kontuan epaimahaiak:

- Irudimena eta sormena.
- Testuaren ezaugarri literarioak.
- Testuaren arintasuna eta koherentzia/kohesioa.
- Hizkuntzaren erabilera zuzena eta aberastasuna.

10. EBAZPENA

Epaimahaiak lanik onenak zein diren erabaki eta sarien ebazpen-proposamena helaraziko dio Hezkuntzako sailburuordeari, eta honek dagokion ebazpena eman eta interesatuei jakinaraziko zaie hilabeteko epean.

Halaber, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (<https://euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa/erabakiak/>) argitaratuko da ebazpena.

11. HUTSIK GERATUTAKO SARIAK

Epaimahaiaren ustez aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Hala gertatzen bada, kategoria edo arlo batean eman gabe utzitako sariak beste kategoria edo arlo bati esleitzea erabaki dezake epaimahaiak, beste arlo horretan saria merezi duten bost lan baino gehiago baldin badaude.

12. SARIA

Saria bost eguneko egonaldia izango da. Egonaldian, idaztearekin zerikusia duten lanketak egiteaz gain, hainbat euskal artista gertu-gertutik ezagutuko dituzte, baita Euskal Herriko zenbait leku ere. Gazteek euskal idazle bat laguntzaile izango dute, uneoro.

13. ARGITALPENA

Hezkuntza Sailak liburu bat argitaratuko du saritutako lanekin, *Sagastiberri* bilduman.

14. IKASTETXEENTZAKO SARIA

Ikastetxeen eta irakasleen ahalegina aitortu eta eskertu nahian, lan-kopururik handiena aurkeztu duten 5 ikastetxeak ere saritu egingo dira. *Idazleak Ikastetxeetan* programako bina saio egiteko aukera izango dute saritutako ikastetxeek.

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

